



Loiolako Jai Batzordeko kide batzuk, aurtengo egitarau eta zapiekin.  **NAGORE GARMENDIA**

'Kuadrillolinpiada' jendetsuak, lehen aldiz, Loiolako jaietan

Gaur hasi eta asteazkenean amaituko dira Loiolako jaiak, eta egitarau zabal bezain luzea antolatu du jai batzordeak. Jon Revilla batzordeko kideak, egitarauaren nondik norakoak azaldu ditu.

 Nagore Garmendia Artano

Behin batian Loiolan festak izan ziran, eta aurtengoa ere, bueltan dira, inoiz baino indartsuago. Sei eguneko egitarau zabala antolatu du Loiolako Jai Batzordeak, eta gaur hasiko dira, 18:30ean, txupinazoarekin eta holi festarekin.

Ohiko jarduerak eta berriak diren beste batzuk egingo dituzte aurtengoa, eta Jon Revilla jai batzordeko kideak

adierazi duenez, «uste baino handiagoa» izan da auzoak jarduererikiko izan duen prestutasuna. «*Kuadrillolinpiada*» egingo dituzte aurtengoa, lehen aldiz, eta sorpresa handia hartu du jai batzordeak, 70 pertsona inguruk izena eman dutela ikustean: «Jarduera berriak direnean, jendeari kostatu egiten zaio izena ematea, eta sorpresa handia hartu dugu.

Arrakasta itzela izan da, eta ederki joango da, ziur».

Herri bazkaria, iltzearen ehorzketak, txokolate jana, buruhandi eta erraldioen konpartaren joan-etorriak eta haur jolasak egingo dituzte, betiko legez eta beste batzuen artean, azken hauek auzoko Sustrai aisialdi taldeak antolatuta; San Fermi kantatu eta entzierroa egin ostean, moto eta triziklo lehiaketa egingo dute etxeko txikiek. Puzgarriak, pailazoak, futbol txapelketa eta bingo musikatua egingo dituzte, baita ere, jarduera berri gisa.

Goitiberak, bueltan

Bigarren urtez jarraian egingo dituzte goitiberak; izan ere, arrakastatsua izan ziren iaz, eta aurtengoa partaidetza ere handitu egin da. Hortaz, ibilbidea zaildu nahi izan du batzordeak: «Aurtengoa, emozio pixka bat gehiago eman nahi izan diogu!». Hala, Ariztigainatik Loiolako zeharbidera jaisten den aldapatik botako dira parte hartzaileak, beraiek eraikitako ibilgailuekin.

Kukaña, faltan

Tradizioa da Loiolan, urtero, kukaña egitea. Aurten, ordea, auzoak ezin izan du programan ikusi. «Hai-ze bolada indartsuak egon ziren martxoan, eta haizeak ontzirelekua eraman zuen. Hortaz, ez daukagu aukerarik, oraingoz, behintzat, kukaña egiteko». Beste aukera batzuk aztertu zituzten, besteak beste, militarren zubitik egitea (aspaldi hor egiten zen), baina asko pentsatu ostean, baldintzak ez ziren eraginkorrak, taldearen ustez. «Nahiago dugu itxaron, eta ahal dugunean errekueratuko dugu, zalantzarik gabe», esan du Revillak. «Ea datorren urtean egitea posible den!»

Martxoan egondako haize bolada indartsuek Loiolako ontzirelekua eraman zuten, eta ezin izan dute aurten kukaña antolatu

Ohi baino luzeagoak

Jaiak antolatzea ez da lan erraza, Revillak azaldu duenez: «Bilera asko daude atzetik». Hala ere, apur bat zailagoa izan du aurten batzordeak; lauzpabost egun inguru iraun ohi dute Loiolako jaiak, baina aurten, San Ignazio eguna asteazkena denez, pixka bat luzatu behar izan dituzte. Gaur igoko dute iltzea plazan eta asteazkenean jaitsi, iltzearen ehorzketan «negar egin» eta gero.

Astelehena (hilak 29), baina, atsedeen hartzeko baliatuko dute. «Astelehena pilak kargatzeko erabiliko dugu, asteartean eta asteazkenean indartsuago itzultzeko», esan du Revillak. Asteartea izan ohi da, San Ignazio bezpera, jaietako egunik indartsuena. Mikeltxi DJ-ak hartzen du plazako aginte makila, eta jendez betetzen du, urtero, bere erritmora dantzaz. Gogoz agertu da, hortaz, batzordea: «Jendeak ondo pasatzea eta dena antolatu dugun moduan ateratzea nahiko genuke». ●

**OSTIRALA 26****18:30 · Plazan**

Txupinazoa.

18:35 · Plazan

Holi fest.

18:45

Buruhandiak eta erraldoiak Burrenba elektrotzarangarekin.

20:00 · Sardexka tabernan

Dj festa: '1970'.

22:00 · Plazan

Xsakara, Alarma Morea, Ganibet eta N-Lezz DJ-a.

LARUNBATA 27**09:00 · Auzoko kaleetan barrena**

Txistularien diana.

10:30 · Frontoian

Pala txapelketa finala.

11:00 · Plazan

Futbolin txapelketa.

12:30 · Plazan

Bermut musikatua: Hegoak.

14:00 · Plazan

Kudrillen bazkaria.

16:00 · Plazan

Kudrillolinpiadak.

16:30 · Loiolatarra kalean

Mus txapelketa.

18:00 · Auzoan zehar

Matraka elektrotzaranga, buruhandi eta erraldoien laguntzaz.

20:00 · Aldazabal tabernan

Kontzertua: Bel Cross.

22:00 · Plazan

Itzal erromeria eta Amaia Normal DJ-a.

22:00 · Igeltegi kalean

Cano DJ-a.

IGANDEA 28**09:00 · Auzoko kaleetan zehar**

Txistularien diana.

10:30 · Urkiko ontzirekutik

Loiolatarra elkarteak antolatutako batelen estropada ofiziala.

11:30 · Gibelurdin tabernako plazatxoan

San Fermin Txiki tailerra.

12:00

San Fermin Txiki entzierroa, Igandea txarangarekin.

12:00 · Eliza kalean

Ardo feria.

14:00 · Plazan

Familien bazkaria, etxetik ekarritakoarekin.

17:00 · Plazan

Moto eta trizikloen lasterketa mundiala (2-6 urte).

18:00 · Auzoan zehar

Buruhandiak eta erraldoiak, Igandea txarangarekin.

19:30 · Plazan

La Jodederaren kontzertua.

20:00 · Aldazabal tabernan

Kontzertua: Anonimos.

ASTELEHENA 29

19:00 · Plazan

Menú di giorno ikuskizuna.

ASTEARTEA 30

10:30 · Plazan

Puzgarriak.

11:30 · Plazan

Ai, Zapotxin! pailazoaren *Esan, galtzerdi maitea!* ikuskizuna.

17:00 · Ariztigañatik Loiolako zeharbidera

Goitibera herrikoiak.

18:30 · Auzoan zehar

Loiolatarra danborrada.

Irutxuloko Hitza



19:00 · Plazan

Haurrentzako diskofesta Mikeltxi DJ-arekin.

20:00 · Aldazabal tabernan

Kontzertua: Loretxu Playaz.

22:00 · Plazan

Diskofesta Mikeltxi DJ-arekin.

00:00

Banderaren igoera San Ignazio egunari hasiera emateko.

00:10 · Plazan

Zezensuzkoa.

ASTEAZKENA 31

08:00 · Frontoian

Barrene herrikoia.

09:00 · Auzoan zehar

Diana albokariekin.

10:30 · Topoko plazan

Bir-ziklatuz bizikleta festa (Bizi-Scalextric, Biziklapen eta berrerabilpen tailerra, Bizikleta trebezia zirkuitoa) Kalapie elkartearen eskutik.

10:30 · Plazan

Bigarren eskuko azoka.

12:00 · Satorra tabernan

Sardina jana.

12:30

Kantujira Bentazarreko mutiko alaiak taldearekin.

16:30 · Plazan

Muxikoak eta euskal dantzak.

18:00 · Eliza kalean

Sagardo jai.

18:00 · Plazan

Bertso saioa Puntutanen eskutik.

20:00 · Plazan

Bingo musikatua.

22:30 · Plazan

Txokolate jana.

23:00

Iltzearen ehorzketa Antigua Band txarangarekin.

00:00

Banderaren jaitziera San Ignazio egunari amaiera emateko.

00:00 · Ibaiertzeko pasean

Amaierako traka.